

/2017 FORU DEKRETUA,
koa, Nafarroako Gobernuarena. Honen
bidez irizpideak ezartzen dira Nafarroako
herriguneen izen elebidun ofizialak
erabiltzeko eta grafikoki adierazteko.

DECRETO FORAL /2017, de
del Gobierno de Navarra, por el que se
establecen los criterios de uso y de
expresión gráfica de las denominaciones
oficiales bilingües de los núcleos de
población de Navarra.

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak bere 8. artikuluan ezartzen du Foru Komunitateko toponimoek gaztelaniaz eta euskaraz izanen dutela izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskarazkoa izanen da, non ez den beste izen bat gaztelaniaz; hala bada, biak erabiliko dira.
- b) Eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskarazko izendapen desberdin, jatorrizko eta tradizionala baldin badute, biak erabiliko dira.

Halaber, 8. artikuluko horren 2. idatz-zatiak ezartzen du ezen Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko toponimoak, lurraldeen, herriguneen eta hiriarteko bideen izen ofizialak ezarriko dituela, aldez aurretik Euskaltzaindiak txostena idatzita.

Bestalde, aipatutako 8. artikuluko 3. idatz-zatiak jasotzen du Gobernuak erabakitako izenak legezkoak izanen direla ondorio guztietarako Nafarroa osoan, eta errotulazioa haiekin bat etorriko dela. Errotulazio publikoari dagokionez, Estatuak bere gain hartu dituen nazioarteko arauak beteko ditu Nafarroako Gobernuak.

Euskarari buruzko Legea aplikatzearen ondorioz, badira izen ofizial simple edo bakarrak, esaterako Castejón, Elizondo, Leitza edo Lodosa, baita izen

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasculence, establece en su artículo 8 que los topónimos de la Comunidad Foral tendrán denominación oficial en castellano y en vasculence, de conformidad con las siguientes normas:

- a) En la zona vascofona, la denominación oficial será en vasculence, salvo que exista una denominación distinta en castellano, en cuyo caso se utilizarán ambas.
- b) En las zonas mixta y no vascofona, la denominación oficial será la actualmente existente, salvo que, para las expresadas en castellano, exista una denominación distinta, originaria y tradicional en vasculence, en cuyo caso se utilizarán ambas.

Asimismo, el apartado 2 de dicho artículo 8 establece que el Gobierno de Navarra, previo informe de la Real Academia de la Lengua Vasca–Euskaltzaindia, determinará los topónimos de la Comunidad Foral, así como los nombres oficiales de los territorios, los núcleos de población y las vías interurbanas.

Por otra parte, el apartado 3 del citado artículo 8, recoge que las denominaciones adoptadas por el Gobierno serán las legales, a todos los efectos, dentro del territorio de Navarra y la rotulación deberá ser acorde con ellas. El Gobierno de Navarra en relación con la rotulación pública observará las normas internacionales que el Estado haya asumido.

Como resultado de la aplicación de la Ley Foral del Vasculence, existen denominaciones oficiales simples o únicas como Castejón,

ofizial bikoitzak ere, esaterako
Abaurregaina/Abaurrea Alta,
Doneztebe/Santesteban, Pamplona/Iruña edo
Puente la Reina/Gares.

Irailaren 12ko 270/1991 Foru Dekretuak arautu
zuen nola erabili behar zituzten Foru
Komunitateko Administrazio Organoei
Nafarroako Gobernuak onetsitako izen ofizialak,
eta, urteetan, izen horien erabilerak eta
bideetako errokulazio eta seinaleztapenetako
zeinu grafikoak bat etorri dira gai horri buruzko
arauekin.

Institutu Geografiko Nazionalak "Nazioartean
mapen eta beste argitalpen batzuen editoreek
jarraitu beharreko toponimiako jarraibideak"
agiria argitaratu zuen, 2011n, Izen Geografikoak
Normalizatzeko Nazio Batuen Laugarren
Konferentziaren 4. ebazpena betetzeko.

Euskarari buruzko Foru Legea eta Institutu
Geografiko Nazionalak ezarritako jarraibideak
aplikatzeko, ezinbestekoa da irizpideak ezartzea
herriguneei izen elebidun ofizialak erabiltzeko
eta grafikoki adierazteko.

Bestalde, komeni da euskaraz normalizatutako
izenekin arautzea izen geografikoen erabilera.
Eskualdeetako eta Eremita Urriko Hizkuntzen
Europako Gutunak honako hau dio, 7.2
artikuluaren zati sarturik baitago ("Lortu
nahi diren helburuak eta printzipioak): "Aldeek
konpromisoa hartu dute ezabatzeko, oraindik
egin ez badute, eskualdeetako edo eremurriko
hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen
bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo
lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza
hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea
arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak.
Eskualdeetako edo eremurriko hizkuntzen
aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko
eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen
aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurri
helburua eskualdeetako edo eremurriko
hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko
herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo

Elizondo, Leitza o Lodosa y denominaciones
oficiales bilingües como Abaurregaina/Abaurrea
Alta, Doneztebe/Santesteban, Pamplona/Iruña o
Puente la Reina/Gares.

El Decreto Foral 270/1991, de 12 de
septiembre, reguló el uso por los órganos de la
Administración de la Comunidad Foral de las
diferentes denominaciones oficiales aprobadas
por el Gobierno de Navarra y, en el transcurso
de los años, el uso de dichas denominaciones,
así como de los signos gráficos en la rotulación
y señalización viaria ha seguido las diferentes
normas dictadas al respecto.

El Instituto Geográfico Nacional publicó el
documento "*Directrices toponímicas de uso
internacional para editores de mapas y otras
publicaciones*" en 2011, en cumplimiento de la
resolución 4 de la Cuarta Conferencia de las
Naciones Unidas sobre la Normalización de
Nombres Geográficos.

En aplicación de la Ley Foral del Vascuence y
de las Directrices establecidas por el Instituto
Geográfico Nacional es necesario establecer los
criterios de uso y de expresión gráfica de las
denominaciones oficiales bilingües de los
núcleos de población.

Por otra parte, es conveniente regular el uso de
los nombres geográficos con denominaciones
normalizadas en euskera. La Carta Europea de
las Lenguas Regionales o Minoritarias establece
en el artículo 7.2, artículo encuadrado en la
Parte II referida a los objetivos y principios
perseguidos, que "Las Partes se comprometen
a eliminar, si aún no lo han hecho, toda
distinción, exclusión, restricción o preferencia
injustificadas con respecto a la utilización de
una lengua regional o minoritaria cuyo objetivo
sea desalentar o poner en peligro el
mantenimiento o el desarrollo de la misma. La
adopción de medidas especiales en favor de las
lenguas regionales o minoritarias, destinadas a
promover una igualdad entre los hablantes de
dichas lenguas y el resto de la población y
orientadas a tener en cuenta sus situaciones
peculiares, no se considerará un acto de
discriminación con los hablantes de las lenguas

hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada". Gainera, Gutunaren III. zatian ("Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak bizitza publikoan erabiltzearen aldeko neurriak"), 10. artikuluan, administrazioko agintariei eta zerbitzu publikoei buruzkoan, zehazki 2. ataleko g) letran, aipatzen da "eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako toponimiako ohiko formak eta zuzenak erabili edo onartzea, beharrezkoa bada hizkuntza ofizialetako izendapenekin batera".

Azkenik, Euskaltzaindiak, kontsultarako erakunde ofiziala baita hizkuntz arauen zehaztapena ezartzearen ondorioetarako (Euskarari buruzko Foru Legearen 3.3 artikulua) eta toponimia gaietarako (Euskarari buruzko Foru Legearen 8.2 artikulua), gomendatzen du euskaraz normalizatutako izen geografikoak erabil daitezela euskaraz editatutako argitalpen ofizialetan.

Horrenbestez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hamazazpiko aren (e)an egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat etorritz,

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da irizpideak arautzea, Nafarroako Administrazio Publikoek egoki erabil ditzaten Nafarroako herriguneen izen elebidun ofizialak, baita horiek idazteko zeinu grafikoak definitzea eta egokitzea ere.

2. artikulua. Herrigune izen ofizialak.

Nafarroako herriguneen izen ofizialak bi motatakoak izanen dira:

- a) Izen ofizial bakarrak.
- b) Izen elebidun ofizialak, halakotzat harturik izen ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz dutenak.

más extendidas". Además, en la Parte III de la Carta, donde figuran las medidas en favor del empleo de las lenguas regionales o minoritarias en la vida pública, en el artículo 10, relativo a las autoridades administrativas y servicios públicos, se hace referencia, concretamente en la letra g) del apartado 2, al "empleo o adopción y, en el caso de que proceda, conjuntamente con la denominación en la(s) lengua(s) oficial(es), de las formas tradicionales y correctas de los toponímicos en las lenguas regionales o minoritarias".

Finalmente, la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, institución consultiva oficial a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas (artículo 3.3 de la Ley Foral del Vasceuce) y en materia de toponimia (artículo 8.2 de la Ley Foral del Vasceuce), recomienda el uso de nombres geográficos con denominaciones normalizadas en euskera en las publicaciones oficiales editadas en euskera.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Relaciones Ciudadanas e Institucionales y de conformidad con el Acuerdo adoptado por el Gobierno de Navarra en sesión celebrada el día de de dos mil diecisiete,

Artículo 1. Objeto.

El presente Decreto Foral tiene por objeto regular los criterios para el uso adecuado por parte de las Administraciones Públicas de Navarra de las denominaciones oficiales bilingües de los núcleos de población, así como la definición y adecuación de los signos gráficos empleados en su escritura.

Artículo 2. Denominaciones oficiales de los núcleos de población.

Las denominaciones oficiales de los núcleos de población de Navarra serán de dos tipos:

- a) Denominaciones oficiales únicas.
- b) Denominaciones oficiales bilingües, entendidas estas como las que tienen denominación oficial en castellano y en euskera.

3. artikulua. *Izen ofizialen erabilera.*

Bigarren artikuluan deskribatu bezala ezarritako izen ofizialak legezkoak dira, ondorio guztietarako, Nafarroako lurraldearen barnean, eta errotulazioa, bide seinaleak eta argitalpen ofizialak horren araberakoak izanen dira. Seinaleztapenaren arloan, Estatuak bereganatzen dituen nazioarteko arauekin bat jokatu da.

4. artikulua. *Izen ofizial elebidunak erabiltzeko irizpideak.*

Administrazio publikoek honako irizpide hauen arabera erabiliko dituzte izen elebidun ofizialak:

a) Euskarri bakarra (zigiluak, logotipoak, idazpuruak, bideetako errotulazioa, etab.) erabiltzen den jarduketa administratiboetan, bi izenak erabiliko dira, honako ordena honetan:

Herrigunea eremu euskaldunean badago, lehenik euskarazkoa idatziko da, eta ondoren gaztelaniazkoa, eta herrigunea eremu mistoan edo ez-euskaldunean badago, lehenik gaztelaniazkoa idatziko da, eta ondoren euskarazkoa. Izenak barra baten bidez bereiziko dira (izena / izena).

b) Gaztelaniaz idatzitako jarduketa administratiboetan, bi izen ofizialetatik gaztelaniazkoa erabiliko da; nolahi ere, jarduketa horietan euskarazko izena ere aipa daiteke, horren zabalkundea egiteko.

c) Euskaraz idatzitako jarduketa administratiboetan, bi izen ofizialetatik euskarazkoa erabiliko da.

5. artikulua. *Zeinu grafikoaren erabilera.*

Herriguneen idatzizko adierazpenean, honako zeinu grafikoak erabiliko dira, nazioarteko

Artículo 3. *Uso de las denominaciones oficiales.*

Las denominaciones oficiales establecidas en los términos descritos en el artículo 2 son las legales a todos los efectos dentro del territorio de Navarra, y la rotulación, la señalización viaria y las publicaciones oficiales serán acordes con ellas. En materia de señalización, se actuará en concordancia con las normas internacionales que el Estado asuma.

Artículo 4. *Criterios para el uso de las denominaciones bilingües.*

El uso por parte de las Administraciones Públicas de las denominaciones oficiales bilingües se atenderá a los siguientes criterios:

a) En las actuaciones administrativas en las que se utilice un único soporte (sellos, logotipos, membretes, rotulación viaria, etc.), se expresarán ambas denominaciones, y el orden será el siguiente:

Si el núcleo de población está ubicado en la zona vascofona, en primer lugar se escribirá la correspondiente al euskera y a continuación la correspondiente al castellano, y, si el núcleo de población está ubicado en la zona mixta o en la zona no vascofona, en primer lugar se escribirá la correspondiente al castellano y a continuación la correspondiente al euskera. Los nombres quedarán separados por una barra (nombre / nombre).

b) En las actuaciones administrativas redactadas en castellano, la denominación a utilizar será, de las dos oficiales, la que corresponda a esa lengua; sin perjuicio de ello, en dichas actuaciones se podrá también hacer mención a la denominación en euskera, con el fin de promover su divulgación.

c) En las actuaciones administrativas redactadas en euskera, la denominación a utilizar será, de las dos oficiales, la que corresponda a esa lengua.

Artículo 5. *Uso de signos gráficos.*

Los signos gráficos que se utilizarán en la expresión escrita de los núcleos de población,

irizpideak erabiliz:

- Barra (/) erabiliko da izen elebiduna duten herriguneetarako, hau da, izena gaztelaniaz eta euskaraz dutenentarako. Errotulazioan, tarte bat utziko da barraren alde banatan.
- Marratxoa (-) erabiliko da izen elkartuetarako, unitate administratibo bakar bat ekarri duten herriguneen elkarketak adierazteko. Errotulazioan, ez da tarterik utziko marratxoaren aldeetan.
- Herrigunearen izenarekin batera ingurune geografikoaren izena ematen bada, lehenik herrigunearen izena idatziko da, eta eskuineko aldean inguruneari dagokion izena, marratxorik gabe eta bi osagaien artean tarte bat utzita.

Lehenbiziko xedapen gehigarria. *Herriguneen izen ofizialari euskarazko izena gehitzeko tramitazioa.*

Udalerrri edo kontzeju baten izena aldatu behar bada, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 21., 22., 23. eta 25. artikuluen babespean, horretarako espedienteak Euskaltzaindiaren txostena beharko du, Euskararen Legeari buruzko Foru Legeak xedatzen duen bezala, baita Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren txosten bat ere, toponimiaren arloan eskuduna baita.

Bigarren xedapen gehigarria. Unitate administratibo guztietarako erreferentziatzko erregistroa.

Nafarroako Toki Entitateen Erregistroa da erreferentziatzkoa Nafarroako udalerrri eta kontzejuen izen ofizialei dagokienez.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Arau ortografikoak.*

Azentuazioari dagokionez, Espainiako Errege Akademiak ezarritako arauak hartuko dira kontuan gaztelaniazko izen ofizialeetarako, eta Euskaltzaindiak ezarritako arauak euskarazko

en aplicación de los criterios de uso internacional, son los siguientes:

- La barra (/) se utilizará para los núcleos de población con denominación bilingüe, que son los que tienen denominación en castellano y en euskera. En la rotulación se dejará un espacio a cada lado de la barra.
- El guión (-) se utilizará para las denominaciones compuestas que indican la unión de distintos núcleos de población que hayan dado lugar a una unidad administrativa. En la rotulación no se dejarán espacios a los lados del guión.
- Cuando la denominación del núcleo de población se acompaña del nombre del entorno geográfico, se escribirá el nombre de la población y a su derecha el correspondiente al entorno, sin guión y con un espacio de separación entre ambos componentes.

Disposición adicional primera. *Tramitación para la incorporación de la denominación en euskera a la denominación oficial de los núcleos de población.*

La tramitación de un expediente de cambio de denominación de un municipio o concejo, al amparo de los artículos 21, 22, 23 y 25 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, deberá incorporar un informe de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, tal y como dispone la Ley Foral del Vascongado, así como un informe emitido por Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, organismo autónomo que tiene la competencia en materia de toponimia.

Disposición adicional segunda. *Registro de referencia para todas las unidades administrativas.*

El Registro de Entidades Locales de Navarra es el referente en cuanto a las denominaciones oficiales de municipios y concejos de Navarra.

Disposición adicional tercera. *Normas ortográficas.*

En cuanto a la acentuación se tendrán presentes las normas establecidas por la Real Academia de la Lengua Española para las denominaciones oficiales en castellano y las

izen ofizialetarako.

Laugarren xedapen gehigarria. *Euskaraz normalizatutako izenak.*

Toki entitateek euskarazko izena ofizialdu gabe badute, eta Euskaltzaindiak, hizkuntza arloan arauak onesteko eta irizpideak zehazteko agintaritza eskudunak, Nafarroako Gobernuaren kontsultarako erakunde ofiziala denak (Euskarari buruzko Foru Legearen 3.3 eta 8.2 artikulua), izen horiek arauturik baditu, Nafarroako Gobernuak izen horien erabilera normalizatuko du Nafarroako Gobernuaren, haren erakunde autonomoen eta haren mendeko entitateen euskarazko testu eta argitalpenetan.

Xedapen iragankor bakarra Foru dekretu honetan jasotako neurriak aplikatzea.

Foru dekretu honetan ezarritakoa aplikatuko da seinaleztapen berrien errotulazioan, eta oraingoak egokituko dira aldiaren behin egiten den ordezkaren bidez, kontserbazioa, mantentze-lanak edo berritzeak direla eta.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indarrak gabe utzi dira foru dekretu honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, irailaren 12eko 270/1991 Foru Dekretua, arautzen duena Foru Komunitateko Administrazioaren organoek nola erabili Nafarroako Gobernuak onetsitako izen ofizialak, euskarari buruzko foru legearen babesean. Era berean, indarrak gabe gelditu dira Nafarroako Gobernuak 2006ko irailaren 18an hartutako Erabakia, euskararen arloan zenbait neurri hartzeari buruzkoa, eta Nafarroako Gobernuak 2006ko irailaren 25ean hartutako Erabakia, jarraibideak eman zituen Nafarroako errepide sarean seinaleen gaztelaniazko eta euskarazko errotuluak jartzeari buruz.

Azken xedapenetan lehena. *Arauen garapena* Toponimiaren arloko eskumena duen

normas establecidas por la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia para las denominaciones oficiales en euskera.

Disposición adicional cuarta. *Denominaciones normalizadas en euskera.*

En el caso de las Entidades Locales que no tengan oficializada la denominación expresada en euskera y exista una denominación normativizada por la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, autoridad competente para aprobar normas y fijar criterios en materia lingüística, e institución consultiva oficial del Gobierno de Navarra (artículos 3.3 y 8.2 de la Ley Foral del Vasconce), el Gobierno de Navarra normalizará su utilización en los textos y publicaciones en euskera del Gobierno de Navarra, de sus organismos autónomos y de sus entidades dependientes.

Disposición transitoria única. *Aplicación de las medidas contenidas en el Decreto Foral.*

Lo establecido en este Decreto Foral se aplicará en la rotulación de la nueva señalización, y la adecuación de la existente se realizará mediante la sustitución periódica por razones de conservación, mantenimiento o renovación.

Disposición derogatoria única. *Derogación normativa.*

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan lo dispuesto en el este Decreto Foral, y en particular el Decreto Foral 270/1991, de 12 de septiembre, por el que se regula el uso por los órganos de la Administración Foral de las diferentes denominaciones oficiales aprobadas por el Gobierno de Navarra al amparo de la Ley Foral del Vasconce. Asimismo, se dejan sin efecto el Acuerdo de Gobierno de 18 de septiembre de 2006, por el que se adoptan diversas medidas en materia de vasconce, y el Acuerdo del Gobierno de Navarra de 25 de septiembre de 2006, por el que se da instrucción sobre rotulación en castellano y vasconce de la señalización de la Red de Carreteras de Navarra.

Disposición final primera. *Desarrollo normativo.*

departamentuari ahalmena ematen zaio behar diren xedapen guztiak eman ditzan foru dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2017koaren(e)an.

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA /
LA PRESIDENTA DEL GOBIERNO DE NAVARRA

Uxue Barkos Berruezo

Se faculta al Departamento competente en materia de toponimia para dictar cuantas disposiciones se precisen para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en este Decreto Foral.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.* Este Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

Pamplona, de dos mil diecisiete.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO
HARREMANETAKO KONTSEILARIA / LA
CONSEJERA DE RELACIONES CIUDADANAS E
INSTITUCIONALES

Ana Olló Hualde